Poza eta gero

Jose Luis Otamendi

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1990 Jose Luis Otamendi
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1990eko apirila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

I

Zure gorputzak suaren koloreak ditu
zure ausentziak negua dakargu
hego haizearekin
pagadiak dantza dagi uso beltzak
jaulkiz
milaka uso urgun
zure begietan itsasoak gaua jotzen du

Kometatik tira
munduak bira
ziba borobila
umetako ikasgai hura
saboteatu zuen errima
errime haizearen arima

Zelai horretan belarra beltza
ardiak kautxozkoak
zure begietan piratek itsatsi azken proklama
EDERRA ZARA
mamuak gordetzen gure etxea
Tarzan irratian kantatzen ari
ska
zure gorputzean tigre bakartia bizi da

Mendiaren begiak harrak janak ditu
zureak nik oraintxe jango dizkizut

hodeiaren lepoa zuri-zuri nago
ni zu ukitzeko irrikitan dago

kaiua hondarretan jolasean nabil
ni zure inguruan eroturik dabil

zerua zazpiretan itzaltzera noa
ni zugana gero izar bila doa

itsasoak oinetan izerdi asko du
artilezko galtzetak jantzi dizkiogu

Askotan
zure begiekin gertatu ohi zaidanez
beste norbaitek aurrea hartzen didan arren
gauero saiatzen naiz
kafesnearekin ilargia jaten

Triste zaude
triste
erromantzetan bezala
bakardadeak jota
ene maitetto guri samur eder
arnasgela hutsa
saguek jan dizute bihotza

Marrubiak bihotz ttipiak balira
erraz litzateke maitasuna partitzen
uda haseran
saski handiez

poemak zinezko txalupa balira
erraz besteren izuari ematea bira
«primus circumdedisti me» etabar
haizearen oinetan
urteak balira muino
eder litzateke elkar bilatzea
gorputzak balira erreka
ametsak
besterenean ito

Poto batean sartuta zeukat
minutu hura
hiri emateko gauean
eta usoak milaka
udazkenean barrena

lanbroa zeukat gordeta
kaxa batean
hiretzat
eta eguzkia
hankak berotzeko
bakarrik bahago neguan

Hodeien atzetik
euria eragingo diet gau epeletan
bila zaitzaten
nire kuadernoak beteko dituzu
hutsunez
noizbait ahazten banauzu
udaberriaren ertzetan

ez dut atertu
sutan labeak irakiten galdeak
maitatzeko konplotean dihardut

Udaberria
bakardadeak ere
ezartzen dizkik xoxomikoteak
oroitzen porrota
besarkadak kainozuloetan
ostarte hauskorra
beldur kazkabarra

udaberria
lehenbiziko euliak
elurrak hil dizkik parkean beltzago ezinda

udaberria
zinema hotzetan
libertadeaz maitemintzen gara

Pinu adarretan
orduak urkatuta daude
berde

zeru hodeietan
izar bana itsatsia datza
beltza

zure eskuetan
desioa handitzen ari
gori

nire bihotzean
askoren odolak irakin
zuri

kale zokoetan
zakur bat zoriontsu dabil
urdin

Itsasoa eta haruntzago
zure begiak eta haruntzago
zerua eta haruntzago
gure eskuak eta haruntzago besteak
hodei eta su gehiago

II

Arrenkuraz gazteluak
zeinetan ni
pozarekin ezpatak
zeinetan zu
desioetan atakak
zabalduko bait ditu
beldurra hondartza ederretan setiatua dugu

Hortzak beira apurrekin nahasian
eta itsasoa
ingaderoko tabernan
ama
familia eraitsien kondarrez
gaztelu berriak jasotzen
kausitu ditut
festak gure oroitza
mila bider zanpatuekin
kanpaiak jotzen
enara gordinak janez
kausitu zaitut
hegora bidean

Zure haur jolasekin zaramatza zakur handiak
zure kaleak zaunkaz ari
zure etxeko teilak negarretan labainduz erori

orain poemotan zabiltza
egun luze zapuztuen ildotik
karaitzezko habitan
hotza baino edoski ezin
zeru azul
zerraldo urdin
orain poza mintzo zait abaildurik

Bihotza
hustutzen ari zait ilbehera zeruan
mindura isilez

bakardadeak
urdinduz doaz gure herriaren adatsa
nostalgiarik gabe

maitea
hurbiltzen ari zait goizari ihintza
esku leunez

ametsak
ahituz doaz gauaren suero botilak
taigabe

Nonbait utziko nituen zutaz apunteak
paper zurbilen batzuetan
arratsade euritsuekin nahasian

nonbait utziko zintudan
arnasa hartzeaz ahaztuta
gaur ni maitatzearekin

nonbait utziko zidaten zoriona
zelofan artean
haurrek jan zezaten hamabiak jota

nonbait utziko digute oraindik
ergelki maitatzen elkar
amets eraitsien gainean

zutaz idazteko jaio bide nintzen mundura

Beldurrik gabe diot maite zaitudala

aldiz gorrotatuko bazintut
negua tximuentzat hotzegi dela esango nizuke
oihanean
eta itsasoari karatxoa atera zaiola nire esku ondoan
libertadeaz mintzoko nintzaizuke
barrena beldurrak janda
eta ezustean hil beharko zintuzket
tristeziazko armaz
jakin ez zenezan

Zergatik ez da mundua dardaraka hasi
nolaz diraute oraino
arrainek uretan
zeruak hegaztiz
mendiak Lurrean
izarrak hor zutik
nondik darie kemena hodeiei
ibarren mina gozatzeko
zergatik ez dira itzali begiak oro
eta negarrari eman

egunen batean ama hilko zaik

Esaidak
bizirik izateko
zorneak jandako lurrok
maite behar ditudala karatxo
txira har eta guzti
bertan lurpetua izatea
hautatuko dudala jakin
gurutzearen ordez
laborariak gainean
altxorrik topatzeko esperantza gabe
esaidak ikusten nauala
burua ametsen kontra etzana
jokoan
hamar urtetako loa
haurrondo adarretan oroitzak kimatzen
xederaz zerua ehizatu nahi nikek
esaidak
esaidak
esaidak
esaidak itsasoa noiz den

Ez dago ezer
konpon edo gal ez daitekeenik

ez dago inor
salbatu ala hil ez zaitzakeenik

ez dago inon
gure neurriko zerurik
elkar asmatzera gaude kondenaturik

Soldaduak negar dagi
hiriak lanera doazela
ez da ezer zubi azpietan
beldurraren arratoiak baizik

sukalde hotzetan
farol inguruetan txinaurriek argi garraiatzeari ekin
soldaduak botak ahaztu
soldadua minuts
oroitzekin ezik dantzatu ezin
kaleetatik hordi
zeruak zanbulu
soldadua hilik
goizak afaltoan maindire zuri bat itzali

Sugandilak trenbide beroetan berde
amets paralerrokoen uztar-lehiakide
harkoxkor
euliak
zeruko estazio grisetan lo
urrun-urrun
isiltasuna telefonoz bestalde
iraultza berriz hasteko prest

gehiegi hitzeginaren susmoa dut
egin ezaz seguru
gauek nire belarri zuloetan
bizi nahi lukete
debalde

suak gure begietan oso handi daude
horizontea honuntz ekartzen
datozen eran doaz
trenak
musker bidazti jale

Bilduz
beldurrez
bila
bildotsik ez hirian odoloik gabe

bilduz
sonbreruetan ehun urteko porrotak
zine butaka artean saltzeko
estraperloan

beldurrez
zoriona postaz igortzeko inori
bulego haustuetan preso hartzera baino
helduko ez denaren

bila
hegoaldea
neguko estrata hutsetako zakarrontzietan enarak
paretaren kontra edaten
bildotsak otso larrutan

Ingurua ikastera jarri nintzenean
ibaiak negua zekarren
barreiatu egin ziren zelaietan izarrak
sonbrerua erantzi gauak
kalean jendea algara baten zihoan lanera
euriak buztitzea ahantzi
nahi gabe zoriontsu ginen

ingurua idaztera jarri nintzenean
bekokian hodeiek jo ninduten
begiak ohostu zizkidan lagun batek
eskuak moztu herriminez

ingurua bizitzera jarri nintzenean
oparo
erotu egin nintzen

Itsasoan sartu ditut eskuak
gure herriaz pentsatzeko
hoztasunez
ta kaiuak
hodei jaten ari ziren
triste

eta gogoetak joan zaizkit
lagunen altzora
ur azpian
ta pozaren zipriztinek

jeiki egin naiz
gure herrian ibiltzeko
eta grisa aurkitu dut zure ezpainetan pena
eta morea odola jendearen bihotzean
harat honat ezin irten

banku batean jarrita
ez dakit zeri begira
faroletan hil eta hil tximeletak
hartxintxar batzu zenbatzen
mila bider

ilunpetan
izar beltzak ziruditen gure eskuek

Jakiten ta ikasten
sentimentu anabasa hau noraino
eraman ahal dudan
noiz arte maite zure azal nabarra
begizulo hauek
bi begiz aseta
zenbat bider ikus ditzaketen
belardiak horiz tindatzen eta
pentsamentuak urez
izutu gabe

gure odola
zein alkohol kopuru pairatzeko gai den
libertade eske hasi baino lehen
zergatik patrikan gordetzen ditudan eskuak
hegaldatzen saiatu ordez
nondik eta nola helduko zaidan azkena
noren burmuinean bizi den edertasuna
ta zertan dagoen

norentzat ikasi nuen umetan
orain dakidan hitz pila
zeru gris honetan kabitzen al den
behinola kaiuei eskaini nien poema
eta besteenak

Nola abia gintezke
zakilak haurrak beldurtzeko ipuinak badira
aluak itsulapiko mutuak
autobusetan hiriko kaleak nabigatzera

telefono kabinetan hil egiten da
hil egiten dira hitzak kontsolatu ezinik elkar

kurpilak
pena borobilak garraiatuz doaz beltzez jantzita

begirada ahantzi bana datza eskaparate bakoitzean
kartoizko ezpainak

espaloia bestaldekoaz maitemindu da
gutunak zapata zoletan
euritan poemak idazten dizkiola

ergel semaforoak keinuka
iturriak lo
tximiniak gauari mintzo ilunaz

hil egiten da

hil egiten dira kaleak

besoak bi jeringa hustu badira

haragi labarretan joka karelik ez bakardadeak

Zuhaitzek txoriak sorginak gordetzen dituzte euren sabelean
gerrian poemak
labana ahoek marinel joanei
hiri umogabeez pentsatzen jarriak

geldi
mende askotako txioak memorian metatuz
habi galduez mintzo dira
taxutuz hegobariko egunentzat mendeku
orbel egina

sorginak
mihiak sutan
haurtzarobako belarrak nahasten apo bihotzetan
ta grina ezpalak gizakumeenetan
etorkizunen bat asmatzera emanak

azalean
konkista guztiak banderaz sinatzen direla
mina eraginez ta umeak

poemak botiletan ihesi doaz
hirian
marea hil egiten den alkondara da

Betegabeko promesa da nire bizitza
inoiz beteko ez dena
promesa laino
tamarizekiko paseo luzeetan
amodioaren xerka

paper hezeak lurrean
eguzkipean beteko ez den irrifar hotza
trena hartzeko zain promesa ederra

zapiez adio paradisuek saldoka
nire bizitzak promesa zahar bat espero
heriotzeko bostak

Nire eskuetan
gamelu iladak
itsasorantza ikusi ditut ibiltzen
eta gizona
eguzkipera jausita
hondar aleak zenbatzen

nire eskuetan
ikusi ditut
bandera hautsiak ekialdera
aberri zaharrak estaltzen

Haurtzarotik ibili nahi dut gertu
denbora usteldu eta gorde ordez

lehorrekoak garen jakiteke
ito hezurretaraino

ta inoiz ikasi ez

III

Munduak egunez
izarrak gordetzen ditu sonbreru azpian
baina zu eta ni
oharkabean gauzka egunak
oharkabean gauak

zoragarria da
guardasolenpean
itsas-pizti erdiragarriak irudikatzea
bizkarra emanda
kaiuen baladak hiriko gau-begietan iltzekatzea
zoragarria da hemen izatea
hiltzeko ere bai

eta orratz buruak
gorderik duela zuk zenekarren adatsaren forma
lantokitik bueltan
eta autobus beteak zuri deika
eta poetak
zuganatz ibai zeharkatzen apoak bezala

Hona hemen
honako itsaso lasaia
supazter solasaldiekin hezia
ardoa ta mentura anitzen
kutxatxo azula
arroketan eta izarrei begira
mantso negar dagiena

horra hor
horrako itsaso zakarra
gurea
marinelentzat
ahaztura soroak gorde dituena
itzuri ezina
orroe lazgarrienekin
hondartzan
mina deserrotua uzteko
amets dagiena

Leihotik dakusat gaua
argi karatxoek jana
eta enarak lo
eta udazkena zain itzultzeko
hona

burmuina miatuko dizut
denbora pasa
eta ahal izatekotan
oroitzak
hodei batzu ohostu
malkoen baratza

zubiak jasoko ditut
hemendik horra
eta norbaiti hitzegin bakardadeaz
bakarrik ez egoteko
berriz beldurrarekin

neure burua dakusat
zuloak egiten hondartzan
mundua urperatzen denentz

oraindik gazte gara

Oasietan urei giza irudia ezarriko diet
abegitsu
desertuko harea aleak laztantzen

mendietan paperezko hodeiak eta bi lagun
eramango ditut
gura dutenean elkar daitezen eta ortzean galdu

txanponetan kresala margotuz
urduri egongo naiz marea igo zain
arima ugari itsasoz blai

neure eskuekin
erantsiko diot ekiari adatsa
bizien artean banatuz ezpata suzkoak
jainkoaren aurka

ezpainetan negua hankaz gora
haurrei kontatzeko orbela ta elurrak
nondik nora egin zuten txango
txikiak zirela

pozik nago
haizea harro dabil loreetan
gauak inausteko etxola

Akaso
hitzok dira
hilezkor bakarrak
euripean bizi salatari

hodeiak
elkarren ondoren
eklipseen mineriz
leihora biltzen direla
odu oro txiki

agian
aitorpen baten zain
abiatuko zen eternidadea aspaldi
edo gutako asko bederik

Aurrez amestu gabetan
ezin ditut ukitu zure ezpainak
libertadea
ezin dut oratu zure gerria
etxalde txuriak

amets egitean
preso hartzen ditut
mamu guztiak
gero burmuinean
hiltegi usaina daukat

Zeru urdin arreekiko desertuetan irudikatzen dut
bakarrik
egarri
entzulerik ez
ganadu burezur zurbil bilakaturik neure burua
bidazti arnasgabeentzat ikur etsigarri
ez deusa
laguntzeko hilegi

Arratoia daukat begietan
itsatsia
hila
usteltzen hasia
armairu zaharreko zokoan
erpeak hautsita
minez odoletan
katua ari zaizu zahartzen bihotzean

esperantzak ez du
ehizaldirik berpiztu ahal

Berriro galdetuko dinat
kresalak
aingurua ilunen zamaz
ahantzi egiten dituen doi bat hilak
ala igorri hodeietarantz
kaiu gosetiak bezala
berriro entzun nahi dinat
non errotu zainan amodioa
hiltzen garenean
zein herritan eginen dugun lan
nondik joan higana

Badaukat mezurik zuretzat
hiru planetaren izenak ikasitako poemak
zaldi errena kalean behera
leiho guztiak itxita
amodioa estrainekoz sumatu nueneko autoa
errekin hizkera
gau orrazgabeak
gizon gazte baten gorpua promesa ukaldiz hila

badaukat eskerik ere zuri egiteko
gusto baduzu
maite nazazula
azkeneraino

Ahitua nago
inoiz beteko ez diren grinak babestuagatik
eta begietan kaiu hilak baizik
gorde ezinaz

gogaitua
maite ditudan paisaia aurpegiak gaua
neureganatzeko ahulezia dela
arrailduak ditut eskuak
ostadarra harrapatu eta
kolore banako bideak egiteko ahaleginetan
eskifaiarik ez poemak

badirudi
zinez
izan diren gerra denetan ibili naizela

Jada
ezer hilezkorrik ez daukat
ez dago
ostadarra
katu marruekin hausten da
hatzapar punttetan gaua
horizontea esku artean erdibitu zait
garbitzera nindoala
beirazkoa zara
enarak pasa alde batetik bestera

jada
nor isaldaturik ez da
ez dauka
guztiok batera ezkutatu gara

Bihar
enara aldra batek
bihotza orraztuko dizu hegada azkarrez
ni
han ibiliko naiz
antsiaz botiletatik hegazti bihurtzeko edanez

Enarek airean
zure izena idazten dihardutela
orria
kuadrikulo zurietan zorabiatzen da
euria ari du goizean
orbel pilak tolesten ditu haizeak oharkabean
autoa
gaua erdibitzen ahituta gelditu egin da
bazterraren kontra
lurrean
zu haina maite duten norbait
hegoak zabalik
hila suertatu da

Gure eskuetan herri asko dago
loguraz
iragan lazgarriekin lokartu ezin
hilek
kantu dagite
azokan jangaiak erosten dituzte

mutikoek berriz
bazkalostean
kurloien ordez
harrika aingeruak bota dituzte

Bienbitartean
munduko proletarioak
norbere aldetik horditzen dira
elkartu beharrean

bienbitartean
enamoratuek
ahal bezala bortxatzen dute bakardadea

bienbitartean
haizerik gabe
hodeiak usteldu egiten dira zeruan

Ia dena esana zegok
eta neguak miseria aurpegia ekarriko dik

ia dena esana zegok
eta jendea hilko diate euliak akatzeko aitzakiz

ia dena esana zegok
eta dena egiteko oraindik

Hondartzan utzi nahi nuke nire gorputza
arratsez
marea behean
antxeta rafaga batek akribilatua